

Itsaspekoa erakusteko

Otsaileko kultur ekitaldietako bat izango da CIMASUB zikloa; otsailaren 8an hasiko da, astelehenarekin / 2

Donostiako
Nazioarteko Itsaspeko
Zinema Zikloa

cimasub

Ciclo Internacional de
Cine Submarino de
Donostia-San Sebastián

TOBIAS FRIEDRICH/CIMASUB

Aldaketa beharrezkoa da

Klima eta ekologia larrialdiaz idatzi duen liburuaren gainean galdetu diogu Iñaki Petxarromani / 7-9

Buruntzaldea IKTko igerilariak, Espainiako txapelketan eta kontrol lehiaketan markak hobetzen / 11

Sinbolikoki ospatuko ditu Lasarte-Oriak Euskal Inauteriak larunbatean, otsailak 6 / 16

MERKEALDIA

hau da zure momentua

2 mó progresibo
erreflexuen aurkako lenteekin

199€
(lehen 229€)

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20 I.L.G.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   



Ezker-eskuin: Jesus Mari Egizabal (Danok Kide), Maite Iglesias eta Agustin Valdivia (udala), eta David Sanchez (CIMASUB). TXINTXARRI

Zinema, musika, antzerkia eta itsasoa

Otsaileko kultur agendaren berri eman du Lasarte-Oriako Udalak. Urteko bigarren hilabetean, besteak beste, CIMASUB itsaspeko zinema zikloaz gozatuko dute herritarrek: XIII. edizioa izango da aurtengoa, eta otsailaren 8an hasiko da, astelehenarekin

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak otsailerako prestatu duen egitaraua zabaldu, eta hara: zinema, musika, antzerkia eta itsasoa, urteko bigarren hilabeterako eskaintzaren lau osagaiak. Kultur agenda zabala, urteko hilabete laburrenarentzat.

Okendo Zinema Taldeak hasiko du ekimen zerrenda: asteburuan egingo ditu hilabeteko hiru saioetako bi. Euskal dokumentalak izango dituzte ardatz. Ostiralean, hilak 5, Bertha Gaztelumendik zuzendutako *Ez, eskerrik asko!* Gladysen leihoa Gladys del Estal gazte ekologistari eta 1970-1980 hamarkadetakako nuklearren aurkako borrokari buruzkoa. Larunbatean, hilak 6, aldiz, Lander Garrok zuzendutako *Bi urte, lau hilabete eta egun bat*, intsumiso izanagatik espetxeratuak izan ziren eta derrigorrezko soldadutzaren kontra borrokatu zuten sei lagunentzako dokumentalak. Hilabeteko azken hitzorduan, 19an, Pablo Larrain zinemagile txiletarraren *Ema* ikusgai izango da. Hiru emanaldiak jatorrizko hizkuntzan azpizdatzietan egingo dituzte, 19:00etan hasita. Sarrerak 5,50 eurotan salgai.

Zinemarekin jarraituz, igande honetan, hilak 7, *Vacaciones contigo... y tu mujer* (Oporrak zurekin... eta zure emaztearekin) ikusgai izango da, eta bi aste

geroago, berriz, lehen aipatutako *Ema*. Bi emanaldiak 19:00etan hasiko dira eta sarrerak 5,50 euro balio du. Hilabetea ixteko haur zinemaren txanda izango da. *Elfikinak filma*, euskaraz, 17:00etan.

Itsasoari begiradak

Otsailaren 8an, astelehenez, XIII. Itsaspeko Zinema Zikloari ekingo diote. Egun horretan eta ondorengo bi astelehenetan, 2020ko jaialdian parte hartu zuten film laburrak proiektatuko dituzte kultur etxean, 19:00etan hasita. Argazki erakusketa batek osatzen du zikloa; hilaren 8an inauguratuko dute, 16:00etan. Irudi bilduma kultur etxeko kafetegian egongo da hilaren 8tik 26ra bitartean, eta 17:00etatik 21:00etara ikusteko aukera izango da. Zikloko jardueretara sarrera doakoa da; bi gonbidapen jaso daitezke, ez gehiago.

Itsasoarekin lotura du ere *Ciaboga/Ziaboga* dokumentalak. Kantauri Itsasoko arraun tradizioari buruzko lana da, kirol horrekin askotariko lotura

OKENDO ZINEMA TALDEAK IREKIKO DU AGENDA, 'EUSKAL DOKUMENTALAK' ZIKLOAREKIN

izan duten hamaika lagunentzako testigantzekin josia. Bertan agertzen dira, esaterako Antonio Oliden edo Jose Luis Kortan, bi Kontxako bandera irabazi zituen Lasarte-Michelin traineruaren patroia eta arraunlari izandakoak. Gonbidapena behar da. Hilaren 26an proiektatuko dute, 19:00etan.

Bi antzerki emanaldi ere egingo dituzte. Helduei begira, hilaren 12an 19:00etan *¡Ave osos!* oholtzaratuko du El mono habitado taldeak. Sarrerak 5,50 euro balio du. Familien txanda, berriz, hilaren 20an izango da, 17:00etan. *Botadun katua* antzezlanaren ekarriko du Gluglu taldeak, euskaraz. Sarrerak 3,80 eurotan eros daitezke.

Musikak ere izango du bere tarteak. Opera digital denboraldiaren barruan, balletaren izango da oraingoan. Hilaren 10ean, asteazkena, Royal Opera Houseko balletak dantzatutako *Giselle* klasikoaz gozatuko aukera izango dute lasarteoriatarrek. Sarrera aurrez erosiz gero, 7,5 euro balio ditu; egunean bertan erosita, berriz, 9 euro. Lasarte-Orian sortutako Hilotz taldeak kontzertua eskaini behar zuen otsailaren 13an, ostiralarekin, baina, taldeko kideek jakitera eman dutenez, bertan behera utzi dute musika emanaldia.



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

Iritziak

Iritzi bat ematea eskatzen zaio askotan zutabegile bati. Gai baten inguruan, karaktere muga batekin. Iritzia elementu lotesle bezala ikusten da. Zergatik baina? Iritzia, sailkatzeko tresna gisa ere erabiltzen da; bai horrela dela uste dut.

Beltza edo zuria, busti egin behar zara, zirt edo zart. Adostasunak, sinergiak edota erdibideko puntuak ez daude modan. Bada jendea, grisa gustuko duena, grisetan mugitzen dena eta ez duena zertan baterako edo besterako bidea hartu beharrik. Pertsonalki ulertzea kostatzen zaidan jarrera bat izanda ere, kasu askotan pertsona hauen gaitasun horretatik asko ikasten dela esan dezaket. Ezin ditut jasan ordea gizarte honetan iritzia ematerako orduan barneratuak ditugun hainbat ohitura.

Gizakia, animalia soziala izaki, elkarbanatzea gustuko du eta ardiaren gisara aritzen da askotan adibidez militante zaren alderdi politikoaren ildo nagusiak zehazturiko iritzi guztiak berretsiz, nahiz eta zure egunerokoan erabat kontraesankorrak diren ekintzak burutu. Hitzetan sendo, ekintzetan ahul. Neurri handiagoan edo txikiagoan guztiok egiten ditugulakoan nago eta ez naiz soilik politikaz ari; iritzi horiekiko jarreraren oinarritzen naiz. Gureak bailiran saltzen ditugu irmo besteen aurrean, ustezko pentsakera horren defentsan, gure ideologia edo sineste baten aitzakian, kasu askotan dimentsio ezezagunetako interesak ezkututzen dituzten arren. Gure eguneroko errealitateak, urrun kokatzen gaitu sarritan. Horrenbeste babestutako iritzi horri errespetua faltatzen diogu, korronte horren estereotipo eta pentsamolde guztiak geureganatzen saiatzeraino, nahiz eta jakin gure barnean ez dugula bat egiten erabat ikuskera horrekin eta azken finean gure ideia askori traizio egiten ari garen, sekula jakingo ez dugun arrazoiren baten mesedetan; taldean babestua sentiaraztearen truke.

Bigarrena, nire iritzia berezia dela sentitzea. Besteengandik desberdin izatea bai, hori bai modan dagoela. Horretarako muturretara bideratzen dut nire pentsamolde horren oihartzuna, oihartzuna diot, gerora horrek ekar litezakeen albo ondorioak ez baitituzte kontutan hartzen eta horrekin beste edozeinen ideia edo iritzietatik aldentzen naiz. Nire iritzi oso desberdin bat sortuz, jada erroturik dagoen iritzi korronte baten barruan. Ekologismoarekin gertatzen da hori adibidez. Zinez gure burua oso berdetzat dugun jende asko lanera joaten gara autoz, erosotasun hutsagatik lantokia kilometro gutxi batzuetara izan eta hainbat aukera garbiagoak izanda ere. Gero, hori bai lagun arteko solasaldietan edota asteroko elkarte ekologistako bileretan, bulegorako egur berrerabilgarritz egin dituzun altzarien argazkiak erakutsiko ditugu, izan ere, egurra eta altzariak IKEAn erostea ez da zinez berdea den pertsona baten hautu egokia eta oraindik gutxiago bereizgarri egingo gaituena. Material birtziklatuz egindako belarritakoak erabiltzeak, albokoak darabilen iPhonearen alboan aurrerakoiago edota bereziago sentiarazten gaitu. Ni berdea naiz eta zu aldiz...

Hirugarren jarrera desatsegin bat ere oso barneratua ikusten dut gure artean. Isiltasuna ez errespetatzea, iritzi moduan ez hartzea. Isiltzen dena, beti baztertuta uzten da edota guztiari "amen" egiten diola esaten zaio. Askotan isilean dagoen horrek bere argudioak izango ditu pentsatzen duena ez plazaratzeko. Izan foro horren ildo nagusiarekin aurkakotasuna helarazteko beldurra, izan berehalako eta zentzugabeko umiliazio edo gutxiespen ariketa deitoragarri eta dohako bat izanen delako trukean jasoko duena. Beltza ala zuria. Forofismoarekin estuki lotua ikusten dut. Kirol munduan oso zabaldua, politikan ere oso errotua eta gizarte naturaltasunez onartua. Iritziak, gaur egun prezio sozial bat dauka eta adierazpen askatasunaz ahoa betetzen zaigun bitartean, egunerokoan nahi gabe askotan eta beste batzuetan nahita azpiratzen ditugun iritzi, isiltasun eta jarrerei gehiago erreparatu beharko geniekeela uste dut.

Ikasleen euskarazko trebetasunak indartzeko

Aurtengo ikasturteko hitzarmenak sinatu dituzte herriko ikastetxeetako hiru guraso-elkarteek eta Lasarte-Oriako Udalak. 65.426,98 euro jasoko dituzte Oriartekidek, Burunzpek eta Landaberrik, 2019-2020 kurtso akademikoan baino %1,1 diru gehiago

Txintxarri

Lasarte-Oriako ikastetxeetan ikasten duten gaztetxoek euskarazko trebetasunak eta ohiturak indartzeko, udalak eta Oriartekide, Burunzpe eta Landaberri guraso elkartetako ordezkariak –Oriarte, Sasoeta-Zumaburu eta Garaikoetxea-Landaberri ikastetxeen izenean, hurrenez hurren– 2020-2021 ikasturterako hitzarmenak sinatu dituzte. Hiruen artean, 65.426,98 euro jasoko dituzte, iazko kurtsoan baino %1,1 gehiago. Udaleko Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordokik akordioaren filosofia nabarmendu du: "Udalak eta hiru guraso-elkarteek batera landu dituzte herriko haur eta gazteen euskalduntasuna indartzeko lan-lerro nagusiak eta programa zehatzak; hau ez da diru-emate soil bat".

Oriartekide guraso-elkarteari 29.745,50 euro emango dizkio udalak. Hitzarmenaren muina da *Elemeleka* izena duen programa ikastetxeetako sei ikasmailetakotako talde guztietan aplikatzea. Xede nagusia da gazteen hizkuntza-sozializazioa ahalik eta gehien euskaraz izan dadin laguntzea; 2018ko *Nerabeak Euskaraldian* ikerketa-ekintzan oinarritzen da. Horrez gain, pertsonaia ezagunen bisitak, Oriarteko bertso-eskola



Aste honetan sinatu dituzte hitzarmenak guraso-elkarteek eta udalak. TXINTXARRI

eta euskarazko aldizkariaren irakurketa bildu dituzte.

Burunzpe eta Landaberri

Burunzpe guraso-elkarteak eta udalak zortzi programa diruz laguntzea hitzartu dute: *Gu ere bertsoan* eta *Hezitzaileek asko egin dezakete* egitasmoak, euskarazko aldizkariaren irakurketa, *Esazu* aldizkaria, Euskaraldia, Sasoetako bertso-eskola, gurasoentzako euskarazko eskolak eta jolasgaraiak dinamizatze proiektua garatuko ditu Burunzpek, 12.535,31 euroren truke.

Landaberri guraso-elkarteak 23.145,97 euro jasoko ditu aurtur,

udalarekin adostu dituen zortzi programak gauzatu ahal izateko: *Irria* eta *Irrintzi* aldizkariak, *Hezitzaileek asko egin dezakete*, *Gu ere bertsoan*, gurasoentzako euskara eskolak, Landaberriko bertso-eskola, pertsonaia ezagunen bisitak eta Euskaraldia.

Otsailaren 2an egin dute sinaketa ekitaldia udalak eta guraso-elkarteetako ordezkariak. Agustin Valdivia alkateak, Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordokik, Burunzpe elkarteko ordezkari Noemi Gutierrezek eta Landaberriko Ana Aguirrek parte hartu dute.

Isla eta Urdaburu plazetan parkeak eraiki ditu udalak

Herriko parkeak mantentzeko kontratua bertan behera utzi, eta "laster" aterako du lizitaziora berriro

Txintxarri

Isla plazako parkean egin dute agerraldia Agustin Valdivia alkateak eta Zerbitzuetako batzordeburu David Mateosok. Zumaburu auzoko enparantza horretan haurrentzako parke bat egin du udalak, eta baita estalkia jarri ere. Montajes Garra eta Carpas Zaragoza enpresek burutu dituzte lan horiek, hurrenez hurren. Aurrekontuak 27.648 eta 95.953 eurokoak izan dira. Horrez gain, Sasoetako Urdaburu plazan ere egin dute haurrek jolasteko gune bat. La Carrasca SL enpresa arduratu da obrez; 27.830 euro bideratu ditu udalak horretara.

Azpiegitura berri horiek ez ezik, dagoeneko eginda daudenak "zainduta" mantendu nahi ditu udalak, eta, horretarako, kontratu bat lizitaziora aterako du. "Enpresa bati adjudikatu zitzaizkion lan horiek, baina ez du behar bezala



Valdivia eta Mateos, Isla Plazan. TXINTXARRI

erantzun; kontratua eten, eta berriro aterako dugu lizitaziora", azaldu du alkateak. "Parkeak, frontoiak, ikastetxeetako patioak... Osatzen hasi gara gune estalien sare bat, eta jarraitu nahi dugu, baina 2021ean ez dugu parke berririk eraikitzea aurreikusten".

Lasarte-Oriako 77 kasu atzeman dituzte astebetean

Urtarrilaren 29ko zenbakian idatzi genuen hirugarren olatu betean zegoela Lasarte-Oria, eta, astebete beranduago, esan daiteke bertan jarraitzen duela. Azken astean 77 kutsatze detektatu dituzte gurean; horietatik hamabi, asteazkenean, otsailak 3 –datu horiek izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen azkenekoak, edizioa itxi aurretik–.

Bestela esanda, azken astean ia hamar kasu atzeman dituzte egunero: batez beste, 9,6. Intzidentzia tasa metatuan eragina du horrek: igotzen jarraitzen du, eta 803,36koa izan da otsailaren 3ean, 500eko mugatik urrun.

Lasarte-Oriak, beraz, eremu gorrian jarraitzen du, eskualdeko ia herri guztiek bezala: Usurbil da gure laranjan dagoen udalerririk bakarra, 100.000 biztanleko 500 kasu baino gutxiago izan dituelako, batez beste, azken hamalau egunetan.

Aldapako lanak hasi dira

Hasieran aurreikusitako beranduago hasi dira Landaberri ikastolako maldak berritzeko obrak, 2021eko urtarrilaren 27an. Construcciones Moyua enpresari adjudikatu dizkio lanak udalak, 247.727 euroren truke. Lanek hiru hilabete iraungo dutela espero du.

Aldapatik igo eta jaitsi beharrean, bide berri batetik igarotzen dira ikasleak orain. Hori eraikitzen 33.852 euro bideratu ditu udalak.



TXINTXARRI

berria!

Tintorería

Lizardi

Tindategia

Uistin kalea 6
LASARTE-ORIA
610 28 61 05
tintolizardi@gmail.com

Arropa garbiketa eta konponketa

Euskal presoek eskubideak aldarrikatzen

Hilabetero bezala, dozenaka herritar kalera atera dira euskal preso politikoen eskubideen aldeko aldarriak zabaltzera. Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak adierazpen bat plazaratu du; 2020a "espetxeetako egoera larriagotu duen urtea" izan dela azpimarratu du

Txintxarri

60 bat herritar irten ziren ostiral arratsaldean euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko. San Pedro eliza aurrealdean elkarretaratzera egin zuten ordu laurden inguruz, eta, ondoren, Kale Nagusitik barrena Tajamarreko biribilguneraino joan eta, handik, Okendora jaitzi ziren Geltoki kaletik behera.

Plazan, biribila osatu eta hitza hartu zuen pankarta atzean joandako gazteetako batek. Herriko presoek egoeraren berri eman zuen. Jabi Gallaga Zaragozara lekualdatuko zutela jakinarazi zuten ia zoko urte amaieran, baina COVID-19a tarteko, ez dute erabakia oraindik gauzatu eta Kordobako espetxean daukate bigarren graduaren. Pandemiak ere eragin die Lannemezango espetxean dauden Aitzol Iriondo eta Ibon Fernandez Iradi presoek. Bisita bakarra jaso dezakete eta hilabete batzuk dira haurrak ezin izan dituztela sartu.



Urtarrileko 'Azken ostiralean' 60 bat herritarrek parte hartu dute. TXINTXARRI

"Kartzelan sartu nahi dituzten gazteak" ere izan zituzten gogoan. Horretarako Ernaiko kide batek hartu zuen hitza. Lehenik "besarkada" bana bidali zieten hamaika urteko espetxe zigorra jaso dezaketen Aitor Zelaia eta Galder Barbadori.

"Ez dugu onartzen injustizian oinarritutako epaiketarik, gazteria zigortzea eta beldurtzea baita helburua". Belaunaldiz belaunaldi, hainbat eta hainbat gaztek, "beste Euskal Herri bat eraikitzeko egindako ekarpena" ere gogora ekarri zuen eta bere

konpromisoa adierazi "haria eten ez dadin". Halaber, salatu egin zuen lasarteoriatar gazte bezala jasaten ari diren "errepresioa". "Denok ikusi dugu Donostia aldean zer gertatu den eta honen aurrean esan nahi dugu zutik eta tinko jarraituko dugula".

2020. urteari erreparoa

Abenduko *Azken ostirala* ezohikoa izan zen, batetik ostegunean burutu zutelako, Urte Zahar egunean; eta bestetik, abagunea baliatu zutelako ekintza berezia egiteko. Orduan egindako hitzartzean 2020ak emandako irreparoa egin zioten, pandemiak izandako eragina eta gatazkaren inguruan egindako pausoak gogoratuta.

Joandako urtea "itxialdiek baldintzatutakoa" izan da. COVID-19aren eragindako salbuespen egoerak ekarritako mugimendu eta harreman sozialetarako mugak nolabait gerturatu die herritarrei kartzelan daudenek modu "are gordinagoan" bizi dituztenak.

Aipatutako eraginez gain, pandemiak, halaber, herri mugimenduaren antolakuntzan ere sortu ditu arazoak, kale presentzia eta lanketa politikoez gain, diru iturri bat ere kendu baitie.

Pandemiak lehendik zegoena "areagotu", "gordindu", besterik ez du egin; eta egunerokoak "ezkututzen" zituen gizarte

arazoak azaleratu ditu; presoek kasuan, "Euskal Herriaren askapen borroka" gatazkaren oinarrian dagoela eta zapalkuntza eztabaidaren zentroan jarri behar dela ohartarazi zuten. Zentzu horretan, saharar herriari elkartasuna adierazi zioten.

Amaitzeko, gatazka armatuari dagokionez estatuak emandako pausoak ere nabarmendu zituzten. Frantzia gizonezko kartzeletan zeudenak Lannemezan eta Mont de Marsanera gerturatzeko urratsak egin dituzte, ez ordea, emakumezkoenetan daudenak; eta Xiker Haranburu libre utzi zuten 30 urte eta erdi kartzelan igaro ondoren, baina ez berarekin batera atxilotutako Jakes Esnal eta Jon Kepa Parot. Espainian, berriz, gerturatzeko azkartu zituzten, nahiz eta gehienak ez Euskal Herriatu.

"Pauso horiek beharrezko ikusten ditugu, noski, gatazka armatuaren konponbiderik egon ez den honetan, gutxienez aurrerapauso batzuk emateko eta urgentzia batzuei erantzuteko", hala nola, larriki gaixo dauden presoak ateratzea, 20-30 urtez barruan dauzkatenak askatzea edo Frantzia betetako urteak Espainiako kondenetan kontatzea. "Minimoez ari gara". Helburua "euskal presoak Euskal Herrian eta aske" izatea baita, "Euskal Herri aske batean bizi nahi dugulako". Eta horretan jarraituko dute borrokan.

Talka plana, "pandemiaren ondorioei aurre egiteko"

Aurtengo udal aurrekontuetan 1.500.000 euroko partida bat bideratzea proposatu du Lasarte-Oriako EH Bilduk

Txintxarri

COVID-19ak herrian eragin dituen -eta eragiten ari den- arazoei aurre egiteko talka plana bat abiatzea proposatu du Lasarte-Oriako EH Bilduk. Nola? 2021eko udal aurrekontuetan 1.500.000 euroko partida bat bideratzea eskatuz, honako esparru hauetan eragiteko: herriko etxebizitzaren "arazo larriak", genero berdintasunean, kirolean, eragileen sarean eta haien beharretan, eta argiztatzean. Koalizio subiranistaren ustez, udal aurrekontuek "okerren pasatzen ari diren premiei" erantzun

behar diete, "herriari bizia" ematen dioten eragileei lagundu, eta ostalaritzari, zerbitzu pertsonal eta merkataritzari "krisi honetatik bizirik ateratzeko baliabideak" eskaini. "Herritar guztientzako onak izan behar dute".

Eragin-esparruak

Etxebizitzarena "arazo larria" dela uste du EH Bilduk. "Udalak 39 etxe ditu jabetzan, Hipodromo etorbidean, eta hiru urte baino gehiago daramate itxita; berriki, babes ofizialeko beste hamalau gehiago eskuratu ditu Zabaletan".

Etxebizitza horiek publikoki kudeatze aldera, aurrekontuetan milioi bat euroko partida bat bideratzea proposatu du.

EH Bilduren herriko udal taldeari "onartezina" iruditzen zaio Lasarte-Oriako Udalak berdintasun teknikerik ez izatea. Lan hori egingo duen pertsona bat kontratatuzera 50.000 euro zuzendu nahi dituzte. "Are garrantzitsuagoa da hori garai hauetan, pandemiak okerragotu egin baitu indarkeria matxista pairatzen dutenen egoera".

Lasarte-Oriako EH Bilduk aurreratu duenez, "laster" ezagutuko dute aurtengo udal aurrekontuen zerbitzua; Ogasun batzordean jakinarazi zaie. Alor gehiagotan eragin nahi du. Kiroldegi berria "taxuz" eraikitzea "ezinbestekoa" dela uste du: 75.000 euro bideratzea proposatu du




Eske-iskuina: Uxue Loinaz, Jon Martin, Estitxu Garmendia eta Joxe Pikabea. TXINTXARRI

azpiegitura hori kudeatzeko, eta bertako barne-antolaketa eta jardueren erabakiak gauzatzeko.

"Herriko hainbat kultur elkarte egindako espazioen eskaerari erantzun behar zaio; eskatuko dugu 20.000 euro partida bat sartzea,

eragile horiei biltegi bat esleitzeko", jakinarazi du EH Bilduk.

Azkenik, Plazaolako bidea argiztatuzera 81.000 euro zuzentzea galdegingo du. "Erdigunera etortzeko bide zuzena da, eta aisiarako gune garrantzitsua".



ARGAZKI LEHIAKETA LAS ARTe-ORIA

INAUTERIETAKO LEHIAKETA: utzi gaitzak alde batera

Txintxarri

Aurtengo inauteriak apartekoak izango direla-eta, Ttakun KEk inauterietako lehiaketa antolatu du, TXINTXARRI aldizkariaren webgunearen bitartez.

Urte berezia da, zalantzarik gabe, baina elkarteak inauterien izpirituari eutsi nahi dio. Umore ona eta irudimena sustatzea helburu, herriko bizilagunak gonbidatu nahi ditu Ttakunek, buruari eragin, eta mozorro original bat pentsa eta presta dezaten. Horrez gain, euren etxeetako leiho eta balkoiak apaintzera ere animatu nahi ditu elkarteak.

Aukeratutako gaia artea da. "Artearen bidez ideiak, emozioak eta, oro har, munduaren ikuspegia adieraz daitezke. Arkitektura, eskultura, dantza, musika, zinema,

pintura... Herriko artista guztiei balio diezaiekete inspiratzeko eta mozorro original bat asmatzeko. Uxa ditzagun une batez augurio txarrak, eta agur esan diezaiozun neguari: gora inauteriak!"

Parte-hartzaileak bakarka, lagunekin edo familiakoekin mozorrotu daitezke, eta lehiaketan parte hartu. Horregatik, hiru kategoriatan ezarri dira: batetik, familiak (9 urtera arteko haurrak); bestetik, gazteak (10 eta 16 urte artekoak); eta, hirugarrenik, helduak (17 urtetatik aurrera).

Parte-hartzaile bakoitzak argazki bat aurkeztuko du, originala eta gaiarekin bat datorrena. Argazkian norbanakoak, gehienez lau pertsonaz osatutako taldeak edo elkarrekin bizi diren senideak batera ager daitezke.

50 euroko sei opari-txartel banatuko dira mozorrorik original eta onenarentzat; maila bakoitzeko bina sari (irudian ikus ditzakezue). Sari bat herritarrek aukeratuko dute euren bozkekin, eta, bestea, lau lagunek osatutako epaimahai batek. Argazkilari batek, jostun batek, ile-apaintzaile batek eta aktore batek deliberatuko dute.

Argazkiak TXINTXARRI aldizkariaren webgunera igo edo 646 82 44 66 Whatsapp zenbakira bidali beharko dira otsailaren 11 eta 16a bitartean. Argazkiaren izenburuak mozorroarekin zerikusia izan behar du.

Otsailaren 17tik 21era bozkatu ahal izango dira webgunean bertan. Epaimahaiaren erabakia, herriz, 2021eko otsailaren 22an jakinaraziko da.

FAMILIAK	 BOZKA GEHIEN 50 euro dendan erabiltzeko
	 EPAIMAHAI 50 euro dendan erabiltzeko
GAZTEAK	 BOZKA GEHIEN 50 euro dendan erabiltzeko
	 EPAIMAHAI 50 euro dendan erabiltzeko
HELDUAK	 BOZKA GEHIEN 50 euro dendan erabiltzeko
	 EPAIMAHAI 50 euro dendan erabiltzeko



'Xuban eta Keira elur panpinarekin', 335 bozka. OIHANA DE CASTRO



'Izotz malkoak!', 123 bozka. MARIA UZKUDUN



'Pasa bolie', 102 bozka. GORKA LASA

Filomena argazki lehiaketako irabazlea

Txintxarri

TXINTXARRI aldizkariaren antolatu genuen Filomena argazki lehiaketak badu irabazlea: Oihane De Castrok bidalitako Xuban eta Keira elur panpinarekin argazkia izan da bozka gehien lortu dituen, eta hortaz, lehen sailkatua. Zorionak! Laster jasoko duzu Avenida Tabernak egindako patata-tortilla ederra!

Parte-hartzaileek hamalau argazki aurkeztu dituzte TXINTXARRI aldizkariaren webguneko lehiaketara.

Klima larrialdia herri mailan bistaratzen

'U30 Aldaketaldia' ekimenarekin bat egin, eta Okendo plazan manifestatu dira dozenaka herritar; Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak deitu du ekintza horretara. EAEko hondakinen politika kritikatu dute: "Dirua eta etekin pribatua lortzeko negozioa da"

Txintxarri

Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak bat egin du Larreko Mahaiak sustatutako U30 Aldaketaldia ekimenarekin. Elkarretaratzea egin dute Okendo plazan. *Zaldibar berririk ez, ez Zubietako erraustegian ez inon* lelopean talde argazkia egin eta idatzi bat irakurri dute Maria Jose Vivasek eta Ricardo Ortegak.

Aldaketaldiaren helburua klima, bioaniztasuna eta, oro har, ingurumen larrialdia "agerian jarri eta salatzea" da; COVID-19aren pandemiak areagotutakoa. Arazoa mundu mailakoa bada ere, hemen ondorioak ditu eta, aldi berean, hemendik ere haietan eragin daiteke.

Horren adibide jarri dute hondakinen politika. Arlo honetan ez dute ikusten "politika irmo bat" hondakinen sorrera murriztu ezta horiek birziklatuta baliabide berriak sortzeko ere; "dirua eta etekin pribatua lortzeko negozioa baizik". Horren erakusgarri dira Zaldibarko zabortegia eta Zubietako erraustegia, gaitzetsi dituzten bi azpiegitura. Bizkaikoan gertatutako ezbeharrak agerian utzi zuen administrazioaren "utzikeria eta kontrol falta" nahiz "oskurantismoa", bi hildako eta inguruan hondamendi ekologikoa eragiteaz gain. Zubietakoan



'U30 Aldaketaldia' ekimenarekin bat egin dute dozenaka lasarteoriarrek. TXINTXARRI

"oinarri berberak" ikusten dituzte Aire Garbiako kideek. Izan ere, azken hilabeteetan zeharka jakin dute izandako "leherketak, isurketa toxikoak errekarra, suteak... eta auskalo zer gehiagori buruz", enpresak edota GHK-k ukatu ondoren.

Udalaren "utzikeria" salatzen

Lasarte-Oriako udal gobernuaren utzikeria ere salatu dute. Izan ere, uztailaren 9ko udalbatzarrean erraustegian istripu bat gertatuz gero, zer protokolo dagoen galdetu baitzion oposizioak Valdivia

alkateari, eta sei hilabete geroago, "ez daki", azpiegitura Donostiako lurretan egonda hango agintariei galdetu behar diela argudiatuta. Erantzuna "administratiboki zuzena" izan daitekeela onartu badute ere "gutziz beldurgarria" dela uste dute lasarteoriarren osasun eta segurtasunarentzat. "Nola onar dezake erantzun hori udal gobernuak? Zer uste du, zerbait gertatuz gero, kalteek muga administratiboak errespetatuko dituztela? Lasarteoriarrok ere errespetua merezi dugu!".



Amaia Mazkieran herritarren kartelak iragarriko du aurtengo Martxoaren 8a. TXINTXARRI

2022ko Martxoaren 8a iragartzeko kartel-lehiaketa, martxan

Otsailaren 26a izango da lanak aurkezteko azken eguna; parte-hartzaile bakoitzak nahi adina afixa aurkez ditzake

Txintxarri

Datorren urteko Martxoaren 8aren bueltan egingo diren iragartzeko kartel bila ari da Lasarte-Oriako Udala. Lehiaketa jarri du martxan: lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 26a izango da, ostirala. 12 eta 17 urte bitarteko herritarrek parte har dezaketela zehaztu du, eta "nahi adina" afixa aurkez ditzaketela. *Martxoaren 8 de Marzo Emakumeen Nazioarteko Eguna Día Internacional de las Mujeres* leloa izan beharko dute kartelek, bai edo bai.

Afixak formatu fisikoan zein digitalean aurkez ditzakete parte-hartzaileek; izenburua jarri beharko diote lan bakoitzari. Horiek garatzeko eta aurkezteko teknika "erabat librea" dela jakinarazi du udalak.

Lehiaketara aurkezten diren kartel guztiak Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroan jarriko ditu ikusgai,

martxoaren 1etik 9ra, bi egunak barne. Herritarrek bozka eman ahalko dute eta udalak aintzat hartuko ditu euren iritziak, bigarren eta hirugarren sarituak nortzuk izango diren aukeratzeko. Irabazlea, berriz, epaimahai batek Udaleko berdintasun teknikariak, Gizarte Zerbitzuen batzordearen zuzendariak eta "gaian adituak" diren zenbait pertsonak osatuko dute mahai hori.

120 euro irabazlearentzat

Udalak hiru afixa aukeratu ditu. Lehen saria irabazten duenak 120 euro poltsikoratu ditu, eta bere lanak iragarriko ditu 2022ko Martxoaren 8ko ekintzak. Bigarren saria 90 eurokoa izango da, eta 60koa hirugarrena.

Amaia Mazkieran gazteak irabazi zuen iazko lehiaketa; bere kartela aurtengo ekintzen egitarauan ikusiko da.

Zorionak Jabi!

JAVI GALLAGA RUIZ
C. Penitenciario de Córdoba Ctra Sevilla-Madrid Km.391
Apdo. 479 14.007 Alcolea (Córdoba)

"Egin beharreko aldaketa konplexua da, baina ezinbestekoa"

IÑAKI PETXARROMAN 'EZEZAGUNERAKO BIDAIA' LIBURUAREN IDAZLEA

Klima eta ekologia krisiari buruzko kazetaritza liburua idatzi du kazetari lasarteoriatarrek. Bertan bildutako datu eta hausnarketez solastu da TXINTXARRI-rekin

Maddi Zaldúa

Klima eta ekologia larrialdiari buruzko kazetaritza liburua idatzi du Iñaki Petxarroman (Lasarte-Oria, 1973) kazetari lasarteoriatarrek. Sei atal ezberdinetan banatu du lana, eta horietan aztertu du bizi dugun krisia ukatzeko izan diren jarrerak, gizakiaren eragina bizi dugun garai geologikoan, egungo egoera zein den, Euskal Herrian zer egiten ari den, etorkizunera begirako erronkak zeintzuk diren, eta COVID-19aren eta klima eta ekologia krisiaren arteko harremana zein den.

Jakin eta Elkarrek babestuta, Aleka bildumako hamargarren lana da Petxarromanena, eta bertan bildutakoren gainean hitz egin du TXINTXARRI-rekin.

Aspaldi agertu ziren klima aldaketaren lehen zantzuak. XX. mendearen hasieran zientzialariek egindako zenbait txostenetan azaltzen zuten, besteak beste, itsasoko uren mailaren hazkundea. Hori jakinda, nolatan murgildu gara Ezezagunerako bidaia honetan? Zergatik ez da behar den arretarik jarri?

Egia da lehenengo ikerketak XX. mende hasieran azaldu zirela, baina egoeraz jabetzen azelerazio handian hasi ziren; XX. mende erdialdetik aurrera. Erregai fosilen erabilera masiboaren eta industrializazio prozesuaren ondorioz jabetu, eta hasi ziren txostenetan modu zientifiko batean agertzen berotegi gasen

isurketek etorkizunean eduki zitzaketen ondorio larriak, klimari zegokionez. Hor azaltzen hasi ziren, gaur egun, zoritxarrez, gertatzen ari diren zenbait fenomeno. Adibidez, amplifikazio polarra, hau da, poloetako berotze prozesua beste lekuetan baino azkarrago gertatzen ari dela; iheslari klimatikoen gaia, alegia, lurreko zenbait tokitan bizi baldintzak zailtzen eta zenbait momentutan ezinezko bihurtzen direnen heinean, jendea hasiko dela bere lurra uzten, eta abar.

Zergatik ez zaion honi erreparatu? Bada, azken finean, indarrean dugun sistemaren eta garapen ereduaren oinarrian egon delako, neurri handi batean, erregai fosilen erabilera masiboa; ikatza eta petrolioia, besteak beste. Horiiek ustiatzen dituzten enpresa eta lobbyak oso boteretsuak dira eta ahalmena eduki dute. Duela bi edo hiru hamarkada hartu behar ziren zenbait erabaki atzeratzeko. Horrelaxe iritsi gara 1,1 graduko berotze batean egotera, klima aldaketaren zantzu saihetsezina den egoerara. **Mundua etengabeko aldaketa prozesu batean dago beti, baina erreparatu behar zaio aldaketa hori ematen ari den abiadurari, ezta? Hortik dator zenbait adituk pentsatzea seigarren desagertze handia izan daitekeela bizitzen ari garena.**

Hori da zenbait adituk esaten dutena, nik ez dakit hori horrela gertatu daitekeen edo ez. Aditu

batzuk esaten dutena da, Lurra planetaren baldintza biofisikoetan eragin ditugun aldaketen ondorioz, hainbat espezie desagertzen ari direla, ez bakarrik klima aldaketarengatik, baizik eta gu geu egiten ari garen sunsiketarengatik ere bai. Ekosistema pila bat desagerrarazten ari gara, oihanak, besteak beste. IPCC Klima Aldaketarako Gobernuarteko Adituen Taldeak egindako txosten baten arabera, 8.000.000 espezieetik 1.000.000 desagertzeko arriskuan daude, eta ez hori bakarrik: desagertze prozesu horren abiadura sekulakoa da. Kontuan hartzen badugu gertatzen ari diren aldaketa batzuen azkartasuna, panorama beldurtzeko modukoa da, egia esan.

Seigarren desagertze baten aurrean ote gauden esatea zailagoa da. Nik uste dut aldaketa gogorren garai batean gaudela, baina gizakiak erresilientzia handia dauka; baldintza gogorretara ere egokitzeko ahalmen handia dauka. Gehien sufrituko dutenak izango dira baldintza sozioekonomiko txarrenean dituzten herrialdeak eta giza kolektiboak.

Argi dagoena da, ez baditugu aldatzen gure praktikak eta lurrarekin daukagun harremana, egon gaitzkeela arrisku horretan. **Deskarbonizazioa ezinbestekoa da. CO2 karbono dioxido isuriak nabarmen gutxitu behar dira bizi dugun egoerari buelta emateko.**



Klima eta ekologia krisiaz idatzi du Iñaki Petxarroman kazetariak. TXINTXARRI

Industria garaian baino 1,1° beroagoa da munduko batz besteko temperatura, eta Euskal Herrian ere 1°tik gora igo da temperatura.

Euskal Herrian, tokiaren arabera, munduan gertatzen den bezala, batez besteko temperatura gehiago edo gutxiago handitu da. Adibidez, Pirinioetan, 1,1 graduko berotze hori gaintu da; 1,5 graduko berotzea dago bertan. Barnealdean, orokorrean, gehiago berotu da temperatura, Errioxan esaterako. Kostaldean eta Kantauri isurialdean, pixka bat gutxiago; gradu bat baino gutxiago.

Baina hori baino garrantzitsuagoa da joera. Toki guztiak ari dira berotzen, eta horrek sortzen dituen aldaketak, ziur aski, atzera bueltarik gabekoak izan daitezke. Horrek dakar, deskarbonizazio prozesua martxan jartzearen beharra, ezinbestean eta ahalik eta lasterren, sektore guztietan: garraioan, nekazaritzan, industrian, etxebizitzan sektorean, eta abar.

Gure sistemaren erroan dauden baldintzak aldatu behar ditugu, bai ekoizpen prozesua, bai kontsumo maila. Aldaketa oso konplexua da, baina ezinbestekoa. Hori da atera behar dugun muturreko fenomenoetan gehiago murgildu nahi ez badugu.

2015. urtean Parisko Hitzarmena sinatu zuten 195 herrialdek baino gehiagok, bermatzeko tenperaturaren hazkundea bi gradutik beherakoa izatea. Hori lortzeko, ordea, berotegi gasen isurketak ¼ gutxitu beharko liriteke 2020. eta 2030. urteen artean. Herrialde kutsatzailenak, ordea, ez dira agindutakoa betetzen ari.

2015etik 2019ra bitarte, handitu egin dira berotegi gasen isurketak. Egia da 2020an %7ko jaitsiera egon dela, baina urtea erabat berezia izan da; koronabirusaren ondorioz, murriztu egin da gure mugikortasuna eta industriaren zati bat geldirik egon da, besteak beste. 2020a ezin daiteke hartu urte normal bat bezala. Adituek esaten dutena da %7ko jaitsiera

egin behar dela urtero, baina iaz gertatutakoa ezin daiteke eredutzat hartu. Izan balitz aldaketa urte normal batean gertatu dela, gure garraio eremuan edo gure deskarbonizazio prozesuan eman dela, pausoak hein horretakoak izan balira, agian bestelako irakurketa batzuk egin zitezkeen. Baina gauden puntuan ezin dugu horrelako irakurketarik egin; oraingoz ez behintzat.

Orain, AEBetako presidente aldaketarekin, Joe Bidenek agertu du Trumpen legatu politikoa alde batera uzteko asmoa, besteak beste azalduz, AEBak klima larrialdiari aurre egiteko Parisko Hitzarmenera itzuliko dituela.

Munduko potentzia handienak eta sistema kapitalistaren oinarri batzuetan bai egin da deskarbonizazio prozesu mantso baten aldeko apustua. Hor dago adibidez *New Green Deal* edo Itun Berde Berria, planteatzen duena nolabaiteko inbertsio erraldoi batzuk bideratzea karbonoan oso intentsuak diren jarduerak ordezkatzea, bestelako energia iturri batzuekin. Ematen du Joe Bidenek ere bat egiten duela joera horrekin eta horrek esan nahi du, ziur aski datozen urteetan ikusiko dugula aldaketa bat zentzu horretan.

Nik uste dut Europar Batasunean apustua lehendik zetorrela norabide horretan, eta AEBetan ere hortik joan litekeela. Kontuan eduki behar dugu halere, AEBetan erregai fosilen eta petrolioaren industriak, frackingek esate baterako hemen baino askoz indar handiagoa daukatela eta lobby horiek egingo duten presioa, ziur aski, hemen baino askoz handiagoa izango dela.

Dena den, Trump egotetik Biden egotera, klima larrialdiari dagokionez ekarriko ditu aldaketak. Kontua da munduak eta planetak behar dituen aldaketa bakarrak ez direla arlo klimatikokoak; ekologia mailakoak ere badira. Bizi dugun krisi hau ez da klimatikoa bakarrik, ekologikoa ere bada, besteak beste bioaniztasunaren galera hor dagoelako, eta, gainera, oso zaila da ordezkatzea erregai fosilekin sortu dugun sistema hori, jatorri berriztagarriko iturriekin bakarrik. Hortaz, pentsatu behar dugu, ezinbestean jaitsi egin behar dugula gure ekoizpen eta kontsumo maila; ekonomiaren arlo materiala



lazio abendua hasieran lasarteoriatarrek bildu zen Petxarroman, liburuaren aurkezpen ekitaldian. TXINTXARRI

murriztu behar da. Beste atal batzuk, agian, handitu, hazi daitezke, adibidez, zaintza, hezkuntza, osasuna, eta abar; karbonoaren kontsumoan hain intentsiboak ez diren horiek. **IPCCren arabera, alde handia legoke 1,5 graduko edo bi graduko berotzearen artean. Muturreko fenomeno meteorologikoak bortitzagoak lirateke bi graduko berotzearekin. Begi bistara ez dirudi alde handia dagoenik bi temperatura horien artean.**

IPCCk egin zuen 2017-2018. ikasturtean txosten bat gai horri erreparatzeko eta ikusteko zeinen garrantzitsua den 1,5 graduko berotze maila ez gainditzea. Parisko Hitzarmenak aipatzen zuen bi graduko berotzea muga gisa erabiltzea, baina IPCCk eta zientzialariek azpimarratzen dute 1,5 graduko berotzea dela gainditzea komeni ez den marra ziburra.

Kontuan hartuta, dagoeneko 1,1 graduko berotzea nozitzen ari garen momentu honetan sekulako sute, bero-boladak, eta eurite bortitz eta uholdeak jasaten ari bagara, bada, pentsa, temperatura 1,5 gradu berotzen bada. Eta zer esanik ez bi graduko berotzea ematen bada; gaur egun daukaguna bikoiztea litzateke.

Temperatura horien arteko aldea azaltzeko, adibide asko jar

"DUELA HAMAR URTE GAI HAU EZ ZEGOEN AGENDA POLITIKOETAN; EGUN TOKI DENETAN DAGO"

daitezke, besteak beste Artikoko izotza hamar urtean behin urtuko litzateke bi graduko berotzearekin, ehun urtean behin urtu beharrean –Hori gertatuko litzateke 1,5º berotuko balitz–. Natur hondamendiak tenperatura berotze batekin edo bestearekin ezberdinak izango lirateke; alde handia legoke. Adibidez, glaziarren urteza ere askoz handiagoa litzateke bi graduko berotzearekin. Zientziak esaten duena da bi graduko ez, 1,5 graduko berotzea ez gainditzea bermatu behar dela, baina, goazen bidean, oso zaila da hori.

Valerie Masson-Delmonte paleoklimatologoak gizartearen kontzientzia hartze azkarrean du itxaropena. Kontzientzia hartze azkar hori, ordea, berehala egin behar da.

Orain dela hamar edo hamabost urte, gai hau ez zegoen agenda politikoetan, eta gaur egun, toki guztietan dago. Kontua da egoera aldatzeko eskatzen zaizkigun aldaketak oso gogorrek, handiak eta errotik egin beharrekoak direla. Horregatik, uste dut garrantzitsua izango zela duela hogeita hamar urte hasi izan balitz orain hasi behar den prozesuarekin. Horregatik, gauden fase honetan denak izan behar du azkarra.

Baina gizartearen kontzientziazio maila nik esango nuke, bereziki, Parisko Hitzarmena sinatu zenetik hona handitu egin dela. 2018. eta 2019. urteetan egon ziren gazteen mobilizazioak, eta hedabide nagusietan gai hau indar handiz sartu zen. Uste dut gizartearen

lehenetasunen agendan bai sartu dela gaia eta kontzientzia ambientalista gero eta handiagoa dagoela, eta hori, dudarik gabe, sakontzen joango da datozen urteetan, eragiten ari garen kaltea oso handia delako eta horrek dakarrelako bestelako erantzuna jendearen aldetik. Gero eta kalte handiagoa egin, jendeak gero eta kontzientzia handiagoa izango du naturaren babesarekiko.

Glaziarren urtzearen ondorioz, ur hori guztia itsasoratzen ari da, ondorioz itsas maila %25-30ean hazi da; urtetik urtera ura 3mm igotzen ari da. Euskal kostaldetan ere hasi da hori antzematen. Aurreikusten da 2050erako itsas maila gaur baino 20 zentimetro gorago egotea.

Bai, zalantzarik gabe. Egia da, gure kostaldearen berezitasunengatik, behar bada biziguneei begira ez duela hainbeste eragingo. Egia da, marea goretan eta denboraleetan inpaktuak gaur egungoak baino askoz handiagoak izan daitezkeela eta arriskuak ere bai. Arrisku horiek aurre egiteko baliabideak martxan jar daitezke, baina askoz ere dedikazio handiagoa jarri beharko zaio, bai giza baliabideen aldetik, eta baita ekonomikoaren aldetik ere.

"ITSASOAK EZKUTATU EGIN DU GUK SORTUTAKO KUTSADURA, BAINA HORI HOR DAGO"

Dagoeneko gertatzen ari da eta gertatzen jarraituko duela garbi dago. Datozen urteetan egoera hori geroz eta nabarmenagoa izango da.

Eta itsasoko uren berotzeen ondorioak ere agerikoak dira, besteak beste, ernaltze zikloen aurreratzea gertatzen ari da. Eta oraindik larriagoa dena, hainbat espezie bizilekua aldatzen ari dira: batzuk iparraldera alde egiten eta berriak gure itsasoetara etortzen. Bizkaiko golkotik, esaterako, *Gelidium* alga desagertzen ari da.

Bai horiek dira gertatzen ari diren ondorio klimatiko batzuk, gertatzen ari direnak ez bakarrik itsasoetan, baita lurrean ere. Azken finean, klima aldatu ahala natura egokitzen joaten da, bere habitatak aldatzen joaten dira; animaliak eta bestelako izakiak joaten dira bilatzen aldaketa gertatu aurreko baldintzak dituzten bizileku berriak.

Hori, itsasoan ere gertatzen ari da, bai. Hotza gustuko duten zenbait espezie iparralderago joaten ari dira, eta beroa gustuko dutenak, berriz, gure ingurura etortzen ari dira, gure urak beroago baitaude. Horri gehitzen badiogu gure alde batetik besterako mugimenduak, eta mugimendu horietan nola eramaten ditugun espezie inbaditzaileak, zer esanik ez.

Espezien nahasketa inoiz baino handiagoa da eta horrek ere sekulako arazoak ekartzen ditu gero; espezie inbaditzaileen ondorioz, desagertzen ari dira lekuan lekuko espezieak eta aipatu dugun espezieen desagertzearen arrisku horrekin bat datorren joera bat da.

Itsasoa da munduaren birika, oxigenoa sortzen ari delako etengabe eta CO2 xurgatzen duelako. Itsasoak dena garbituko duela pentsatzeari utzi behar diogu, eta hortaz, nahi adina kutsadura botatzeari utzi.

Itsasoak bere zabaltasun horretan eman dezakeen irudia izan daiteke dena irensteko gai dela, baina itsasora botatzen duguna hor geratzen da. Adibide oso esanguratsua da plastikoa. Gaur egun badaude plastikoko uhartek itsasoan, hedaduran Euskal Herria baino handiagoak direnak. Zientzialari israeldar batzuek egindako txosten batean irakurri nuen, dagoeneko, planetan dagoen plastikoa pisua bizi diren animalienaren bikoizta dela. Horrek jartzen gaitu behar dugun aldaketaren tamainaren aurrean.

Egia da itsasoarekiko gure harremana, orokorrean, naturarekiko bezalakoa izan dela, alegia, neurririk gabe kutsatzekoa. Itsasoak ezkatatu egin du, baina era batera edo bestera kutsadura hori hor dago, hor geratzen da. Atmosferan gertatu den 1,1 graduko berotzea, itsasoan motelagoa gertatu da, baina, aurrera begira, jasotzen duen bero horrek denbora gehiagoz iraungo du bertan. Hortaz, zailagoa izango da hori etetea; itsasoak jaso duen gehiegizko energia hori guztia hor geratuko da datozen hamarkadetan. Besteak beste, esaten denean joera klimatikoak berotzearena izango dela, hein handi batean horregatik ere bada. **Basoak ere CO2 xurgatzaileak izanik, ezinbesteko dira klima krisiari aurre egiteko. 2019an, ordea, 24.000.000 hektarea baso desagertu ziren.**

Nik uste garrantzitsua dela basoak desagertzeaz gain, zein baso mota ari diren desagertzen. Ez da berdina orain dela hogeitau urte jarritako, adibidez, eukalpto plantazio edo pinudi bat, edo Amazoniako orain arte ustiatu ez den oihan bat. Bereiziki garrantzitsuak dira horiek, horiek dira babestu beharreko basoak. Besteak sortu ere bai, baina garbi dago naturaren sorlekuak eta natura babesteko lekuak direla.

Pandemiarekin badugu adibide bat. Baso batera joaten bagara, suntsitzen badugu eta hor dauden espezieak desagerrarazten baditugu edo espezie horiekin komertzializatzen badugu, hor gordeta egon izan diren birus eta patogenoak guregana iristeko arriskua dago. Horren sortzen ditu zoonosiak –animalietatik gizakietara transmititzen diren gaixotasunak– eta horiek geroz eta arrisku handiagoan jarriko gaituzte.

Klimaren berotzearen inguruan ere beste birus batzuk ere zabalduko dira: adibidez, geroz eta zabalduago dago malaria. Klima berotzen ari denez, malaria transmititzen duen eltxoa gero eta zabalduago dago lehen ezagutzen ez zen lekuetan ere. Hortaz, ezin dugu pentsatu naturaren gainean egiten ditugun kalteek ez dutela gugan eraginik izango. Gero eta frogatuago dago hori hala gertatzen dela.

Klima eta ekologia larrialdiak eragingo dituen muturreko fenomeno ondoriotik klima arrazoiengatik lekualdatu beharko da gizakia haren bizilekutik, beste norabatera.

"8.000.000 ESPEZIEETATIK, 1.000.000 DESAGERTZEKO ARRISKUAN DAUDE"

Dagoeneko, klima arrazoiengatik mugitzen ari da gizakia. Gaur egun, Nazio Batuen erakundeak kuantifikatuta dauzka 30.000.000 lagun mugitzen ari direla klima arrazoiengatik, eta aipatzen du, 2050erako mugimendu mota hori hamarkoiztu egingo dela, alegia 300.000.000 lagun mugituko direla munduan klima arrazoiengatik.

Mugitzearen arrazoiak oso zabalak izan daitezke: ur hornidura arazoengatik, edo lehorteengatik, eta abar, hau da, lehen zituzten bizi baldintzak ez dituztelako gehiago izango. Hori, ordea, ez da etorkizuneko kontu bat, hori dagoeneko gertatzen ari da eta egoera okertu ahala, geroz eta gehiago emango da.

Trantsizio ekologikoari dagokionez, Europaren atzeko bagoian gaudela diozu. Klima politikaren ikuspegitik, nola egiten ari dira gauza Euskal Herrian? COP25 klima aldaketaren inguruko goi bilera baino hilabete batzuk lehenago, 2019ko uztailan, klima larrialdia deklaratu zuen Eusko Jarurjaritzak.

Adibide bati errepara geniezaioke horri erantzuteko. 2015ean Parisko Hitzarmena sinatu zenetik 2019. urtera berotegi gasen isurketak handitu egin dira Euskal Herrian. Horri so egitea nahikoa da, eta, gero, ikusita trantsizioa nola eta zein abiaduratan egiten ari den, ikusten da ez gaudela aurreko multzoan, inondik inora.

Europar Batasunak eztabaidatu du 2030erako Europako Parlamentuak CO2 isurketak %60ko murrizketa eskatu ala ez, eta, hor, aurka bozkatu zutenen artean EAJ Eusko Alderdi Jeltzalea egon zen. Espainian dieselari zerga jarri nahi izan zaionean ere, EAJ aurka azaldu da. Araban, oraindik jarraitzen dute gasa ustiatu nahian. Adibide asko daude. Europako bagoian baldin bagoaz suposatzen da Europan hartzen diren erabakiak ere hemen aplikatuko direla era batera edo bestera, baina gu ez gara izango gurdia tira egingo diona. Hori argi eta garbi ikusten da eguneroko politiketan.

Duela hiru hamarkadako kutsadura mailari eusten dio Euskal Herriak.

"2015EAN PARISKO HITZARMENA SINATU ZENETIK HANDITU EGIN DIRA BEROTEGI GASEN ISURKETAN EH-N"

Munduaren mendebalde aberastu horretan gaude, eta horri dagozkion datuak dauzkagu. Batz besteko CO2 emisioen datua Europakoa baino handiagoa da. Egia da hor dagoela Petronorren findegiafenomenoa eta horrek handitu egiten duela batez besteko hori, baina, azkenean, era batera edo bestera, maila horietan gaude.

Aurrerapausorik eman al da?

Bai, adibidez kontsumoa eta produktioa jaitea eta helburua da pixkanaka jaisten joatea aztarna ekologiko hori maila guztietan. Noski, norbere etetik hasita, baina kolektiboki ere bai. Bakoitzak bizitzeko zenbat gauza behar ditugun aztertu behar dugu, erosketa bat egiten dugun bakoitzean, ondo pentsatzea erostera goazen hori benetan behar dugun, edo ez.

Plateamendu hori pixkanaka-pixkanaka egiten hasi behar gara, ez bakarrik norbere etxean, baizik eta kolektiboki ere. Erreparatu behar da baita ere hartzen diren politika publikoen ardatza ondo zuzenduta dagoen naturaren errespetura edo ez, eta, ez badaude horretara behar bezala bideratuta, beste ardatz batzuk jarri beharko dira. Bestela, gaur egunera iritsi arteko bide honek badakigu nora garamatzen.

Gaur-gaurkoz, ordea, ikus dezakegu politika publikoek zein norabidetan jarraitzen duten. Trantsizio

ekologikoaren ikur gisa aurkeztu dituzte Euskal Herrian garraioaren arloan egiten ari diren azpiegiturak. Hor daukagu, besteak beste, AHT Abiadura Handiko Trena. Hari horretatik tiraka, Zubietara begira ere jar gaitzke. Klima aldaketaren aurkako borrokaren ardatz moduan jarri dute erraustegia, baina dioxina, furano eta metal astun kutsagarri hainbaten sortzailea da, eta berotegi gasak isurtzen ditu.

Ingurura begiratu besterik ez dago zer egiten jarraitzen dugun ikusteko. Erraustegia Ingurumen Zentroa deitzen diote, eta Abiadura Handiko Trena trantsizio ekologikorako abangoardia bezala saltzen digute. Terminoekin jolas asko egin ditzakezu, baina, azken finean, politikak berdinak badira, garbi dago bide bera izango dela.

Egia da gauzak aldatzen ari direla eta aldatzen jarraituko dutela, apustu batzuk eginak daudelako dagoeneko, adibidez, trantsizio digital ekologiko hori martxan jartzeko edo deskarbonizazio prozesu hori eta elektrifikazio prozesu hori martxan jartzeko aldaketa batzuk egiten hasi dira, eta, ziur aski, datozen urteetan gehiago izango dira, baina, lehen esandakoa: eguneroko praktikan ikusten badugu zein proiektu lehenesten diren, alde horretatik etsigarria da.

Egin behar dugun aldaketak azkarragoa behar du izan; gauzak beste modu batera egiten hasi behar da.

Ekofeminismoak ere badu bere garrantzia guzti honetan. Vandana Shiva ekofeministaren gogoeta bat ere bildu duzu liburuan. Esaten du

ezin daitekeela planeta babestu emakumeen ekarpenak eta eskubideak onartu gabe.

Ekofeminismoak erakusten digu non egin eta non dagoen naturaren zapalkuntza eta emakumeena; nola dauden oso lotuta zenbait herrialdetan. Eta horietan hain zuzen ere sortu dira erantzun eta teoria ekofeminista potenteenak; Indian, Brasilen, Hego Amerikako herrialdeetan, Berta Caceresen adibidea daukagu, baita ere Vandana Shivarena, eta abar.


Horiek erakusten digutena da lurraldeen zapalkuntza eta emakumearen zapalkuntza askotan batera datozela, azken finean, natura zapaltzen duten politikak eta emakumeak zapaltzen dituztenak, askotan batera datozela. Batak eta besteak elkar hartuz sortzen direla irtenbideak, bai natura errespetatzeko, eta baita emakumea errespetatzeko ere.

Liburuaren seigarren atalean, COVID-19a iritsi zeneko egoeraz hitz egiten duzu. Bizi dugun krisi ekologiko eta klimatikoak badu erlaziorik koronabirusaren pandemiarekin?

Baso bat suntsitzen badugu, hor dagoen bizitza hori guztia suntsitzeaz gain, hor dauden patogenoak, birusak eta ondoak, besteak beste, zabaldu egiten dira, eta gu, horiekin harremanetan sartzen bagara, arrisku handia daukagu horiek gugana iristeko. Hori gertatu da koronabirusarekin, eta hori bera gertatu zen bere garaian HIES Hartutako Imuno Eskasiaren Sindromearekin, eta beste hainbat gaitzekin.

Gainera, adituek ohartarazi dute zoonosien kalteak handitzen ari direla azkeneko hamarkadetan, eta animalietatik pertsonetara pasatzen diren birus horien bidea aldatzen ari dela. Garai batean, etxeko animalietatik iristen zitzaizkigun, baina, gaur-gaurkoz, geroz eta gehiago iristen ari zaizkigu basa animalietatik. Horrek esan nahi du gu ari garela naturgune horietara hurbiltzen eta horiek suntsitzen, bertan dauden animaliak gaizki tratatzen eta komertzializatzen eta, azkenean, haiek gordetzen dituzten patogeno horiek, era batera edo bestera, gugana iristen ari dira.

Liburuaren azalari beldurrez eta kezka beteta begiratuz amaitu du elkarrizketa kazetariak. Ezin daiteke dena galdutzat eman, baina orain behar dugu hasi aldaketa.



Sei atal ezberdinetan banatuta dago kazetariaren liburua. TXINTXARRI



Buruntzapki Txirrindularitza Eskolako kideak proba batean. BURUNTZAPKI TXIRRINDULARITZA ESKOLA

"Eta kirola, zergatik ez?"

Eskola mailako kirolaren etenaldiak eremu gorritik atera arte iraungo du Lasarte-Orian. Azken asteetan herriko kirol elkarte eta kirolarien gurasoen iritzia bildu du TXINTXARRI-k, eta, eskuan duzun zenbakian, artikulu multzoaren azken atala argitaratu dugu

Txintxarri

Bultzatza Kirola Euskadi plataformak eremu gorrian dauden herrietan eskola mailako kirola ez etetea eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Bien bitartean, Lasarte-Orian maila horietako kirolariek ezin dute kirolik egin. Artikulu honetan bildutako elkarte eta gurasoen aburuz, kirol jarduerak ez luke etenik izan beharko.

Elkartek etenik ez

Texas futbol taldeko kideek Bultzatza Euskadi elkartearekin bat egin dute. "550 elkarte batu gara. Indarra egin eta soinua ateratzen ari gara kirola oinarritzako jarduerak izateko. Ulertzen dugu ezin dela normal entrenatu, baina kirola oinarritzakoa da eta kirolean ez da ia kutsadurarik eman, kasuen%0,03 bakarrik", azaldu digu Yonatan Monroy zuzendaritzako kideak.

Horregatik, etorkizunera begira, eurek entrenatu ahal izateko lanean jarraituko dutela nabarmendu du. "Ea zer gertatzen den".

Izan ere, osasun-neurriek eta etenaldiak euren futbol taldeetan eragina izan duela azaldu baitu. "Texasen herrikoak ez diren jokalariek ditugu. Eta esate baterako, nire taldean, kadeteetan, mutiko bat Andoaingo da. Eremu gorrian sartu baino lehen, guk entrenatu ahal genuen, baina berak ezin zuen. Bestalde, haur askok utzi dute taldea etenaldiko hilabeteetan. Aurten nesken taldea antolatu nahi genuen, baina azkenean ezingo da. Denboraldi hasieran izena emanda zeudenetatik askok taldea utzi dute."

Horrez gain, kirol jarduerak etena badu ere, elkarteak lan eta lan dabiltzala nabarmendu digu Texaseko kideak. "Elkartek ez dugu etenik. Entrenamenduak geratzen dira, baina talde teknikoak beti dago lanean. Neurrien arabera, taldeak berrantolatu, entrenamenduak landu.... Neurri guztiak betetzen direla ziurtatu. Ezin gara geratu, edozertarako prest egon behar gara".

Beste era batera lan egin

Ostadar Atletismoa taldeko kideak pozik zeuden txikiekin lan egin ahal izateagatik. Amaia Andres arduradunak azaldu digunez, azaroan etetea animikoki gogorra izan zen. "Ikasturteari hasiera ematea kosta zitzaigun eta azaroan berriro geratzea animikoki latza izan zen. Ez baitzen konfinamenduan bezala, guztia geratu zela. Urduritasuna zegoen eta galdera ugari; zergatik federatuak bai eta gu ez? Gainera, pena handia eman zidan, haur batzuek kirolean haien lekua aurkitzen dutelako".

Etenaldiko hilabete hauetan kirolariek harremanetan jarraitzen saiatu direla jakitera eman du, baina "zaila" izan dela. "Ez da konfinamenduan bezala, ez gaude etxean sartuta; bizitzak aurrera darrai".

Egoerak eta neurriek ahalbideratzen dutenean hilabete hauetan galdutako arlo teknikoak ezagutzak pixkanaka berreskuratzen saiatuko direla nabarmendu du, eta, batez ere,

haien artean sozializatzea izango dela garrantzitsua, baita euren alde emozionala lantzea ere.

Atletismoko arduradunak COVID-19ak eragindako alde onak ere aipatu dizkigu. "Lehen ikasturte amaiera genuen helburu, orain uzten digutean lan egiteko antolatzen gara. Egiteko beste era bat da. Gainera, haurrak gehiago ezagutzeko aukera eman du".

Azkenik, egoerak ahalbideratzen duenean edo ahalbideratzen duenean lanean jarraituko dutela aipatu du.

Eredu izan

Buruntzapki Txirrindularitza Eskolako kideak COVID-19aren egoerak motibazioa galarazten duela azpimarratu dute.

Taldeko txikiekin, alekin eta infantil mailakoekin, neurriak betetzen, ahal izan dutenean entrenatu dute, talde murriztuetan. Kadete mailakoak, berriz, euren kabuz errepidean egiten dituzte entrenamenduak eta batzuetan kideren batekin batzen dira.

Txirrindularitza eskolako kideek federazioa lehiaketak martxan jartzeko saiakerak egin dituela badakite, esate baterako, ziklo krosseko aire zabaleko proba bat egin da. Baina leku itxietan probak antolatzea saihesten ari direla nabarmendu dute.

Neurriak alde batera utzita, "kirola da gure jardueraren nagusia eta eredu izaten saiatzen gara, gure esku dauden baliabideekin kutsatzeak ekiditeko", adierazi dute.

Guztioi eragin

LOKE Tenis arloko arduradun Mariasun Yurritaren ustez, kirola oinarritzako jarduerak gisa har dezaten borrokan jarraitu behar da. "Gorritz gaudela, protokolo gehiago egokitu beharko genituzke, baina ez debekatu".

Gainera, kirolak onura handia sortu dezakeela nabarmendu du. "Kirolak osasuntsuagoak izaten lagun diezaguke eta gure harreman sozialak kontrolatzen eta jarraipena egiten lagun dezake...".

Horregatik, egoera ulertezina dela nabarmendu du. "Haurrek ezin dute kirola egin, baina denak batera egon daitezke plazan. Hori ez da kirolean gertatzen eta tenisaren kasuan gutxiago, hau da, harreman fisikorik ez duen kirola da".

Era berean, egoera honek guztioi eragiten digula azpimarratu du. "Kirola diziplina jarduerak da, errutina bat hartu behar duzu eta geldialdi hauek apurtzen gaituzte. Ikastaroaren helburuak ezin dira bete".

Ulertezina

TXINTXARRI-k elkarrizketatutako gurasoei ere ulertezina egiten zaie egoera.

Josean Diaz de Gereñuk bi seme-alaba kirolari ditu. Semeak pilota egiten du eta alabak, berriz, gimnastika.

Maila hauetako kirolariek bizi duten egoera zenbait momentuetan frustrantea dela aipatu digu. "Bizitza normalak edo eguneroko bizitzak jarraitzen du eta kirolak mugak ditu". Etenaldiak ere eragina dutela nabarmendu du. "Hasi eta bat batean geratu beharrek, motibazioa edo ilusioa zapuzten du".

Eta etorkizunean kirol galera honek ondorioak izango dituela argi du. "Urte osoan horrela jarraitzea, gazteak kirolik gabe... horrek eragin edo ondorio bat izango du. Ez da prozesu naturala. Askatu behar dute tentsioa eta gazteek bereziki, handia dute. Egun ez dute aukera hori eta tentsio hori beste era batera aterako da".

Horregatik, kirol jardueren etetearekin bat ez datorrela aipatu du. "Ez nago konforme kirola etetearekin. Ulertzen dut neurri batzuk hartu behar direla, baina dagoeneko kirol jarduerak salbuespen modura hartzea ongi irudituko litzaidake. Bizitzak jarraitu behar du, baina hainbeste murrizketa ez da naturala".

Arantzazu Miner eta Aitziber Ibarluzea LOKE teniseko guraso taldeko kideak dira. Bien ustez, haurrek kirola egitea garrantzitsua da. "Bestela ere garrantzitsua iruditzen bazait kirola umeentzako, orain, are eta gehiago", atxiki du Ibarluzeak.

Egoera zaila eta gogorra dela badakite, baina haur eta gazteei "gozokia jarri diete aurrekaldean eta berehala berriro kendu... gogorra da", kexu dira.

Horregatik, kirol arloan, neurriak malguagoak izan beharko liritekeela uste dute. "Trenean, autobusetan, eta abar... jende mordoak ibiltzen dela... eta kirola, zergatik ez?", adierazi du Ibarluzeak. Minerrek, berriz, adierazi du neurri guztiak "ondo" betetz gero, ez duela arazorik ikusten teniseko klaseak emateko. "Pena da".

Zudaire, junior mailako Espainiako txapelkun

AXA Adin Arteko Espainiako Txapelketa antolatu zen Valdemoron, Madrilen. Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek lau probatan parte hartu zuen. Lauetan garaile izan da: bere markak ondu ditu, eta Espainiako errekor berriak ezarri

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilariak hitzordu garrantzitsuak izan dituzte azken asteetan. Aurreko asteburuan AXA Adin Arteko Espainiako Txapelketa eta Euskadiko Igeriketa Federazioak antolatutako Kontrol Txapelketako 2. Jardunaldian parte hartu zuten.

Valdemoro, Madrilen antolatu zen AXA Adin arteko Espainiako Txapelketan Nahia Zudaire lehiatu zen. 16 urteko igerilariak, junior mailako txapela janzteaz gain, sailkapen orokorreko hirugarren postua ere eskuratu zuen.

Emaizta paregabe hori lau probatako markari esker lortu zuen Buruntzaldea IKTko igerilariak. Zudairek lau probetan parte hartu zuen: 100 eta 400 m. libre, 100 m. tximeleta eta 200 m. lau estiloak. Lauetan bere marka pertsonala ondu eta S8 mailako urrezko domina eskuratu zituen.

Era honetara, bere prestaketak era egokian aurrera egiten duela erakutsi zuen gazteak. "Pauso sendoak ematen ari da Nahia etorkizunera begira eta bide horretan egotearen adierazle bat gehiago izan da hau", adierazi du Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko prestatzaileak.



Nahia Zudaire, eskuinean, Espainiako Txapelketako podium orokorrean. FUNDACIÓN AXA

Larunbatean, 400 m. libreko probarekin hasi zuen lehia Zudairek. Bigarren seriean parte hartu zuen, eta ederki egin zuen igeri, bere marka ia hiru segundotan jaitsiz, 5:07,84.

100 m. libreko proba izan zen bigarrena. Zazpigarren saioan parte hartu zuen eta, 1: 10,18 eginez, marka pertsonala hamabi ehunekotan hobetu zuen.

Igandea ongi hasteko, 100 m. tximeleta proba egin zuen Zudairek. Probako bigarren seriean egin zuen jauzi uretara

igerilari gazteak eta 1: 20,70rekin ia hiru segundo kendu zizkion bere aurreko markari.

Eta beste garaipen batekin amaitu zuen bere emanaldia. 200 m. lau estiloko proban 3:00,21eko marka egin zuen Buruntzaldea IKTko igerilariak bere marka pertsonala zazpi segundotan onduz.

Kontrol lehiaketa

Buruntzaldea IKTko gainerako igerilariak Kontrol Txapelketako 2. jardunaldian lehiatu ziren

Tolosako Usabal kiroldegian. Igerilariak "txukun" ibili ziren eta hamazazpi marka hobetzea lortu zuten.

Hauek dira markak ondu zituzten igerilariak eta euren markak: Nora Imaz, 200 m. lau estilo proba, 2:36,34 eta 50 m. tximeleta proba, 35,08; June Lopez, 50 m., 100 m. eta 200 m. libre probak, 30,81, 1:09,05 eta 2:23,90, hurrenez hurren eta 100 m. bizkar proba, 1:15,13; Izaro Audikana, 50 m., 100 m. eta 400 m. libre probak, 31,77, 1:06,31 eta 5:03,25, hurrenez hurren; Garazi Etxeberria, 200 m. eta 400 m. libre probak, 2:28,93 eta 5:02,94, hurrenez hurren eta 100 m. tximeleta proba, 1:20,09; Iker Gandia 100 m. eta 200 m. libre probak, 1:05,37 eta 2:30,00, hurrenez hurren; Jon Pelayo 200 m. tximeleta proba, 3:15,63 eta 100 m. bular proba, 1:29,06 eta Iker Gorostegui, 200 m. lau estilo proba, 2:49,13.

17 urteko taldeko bi errekor ere hautsi zituen Aintzane Sarobek. Bata 200 m. libre probakoa, 2:13,75 eta bestea, 200 m. lau estilo proban, marka berria 2:34,94an utziz.

Europako Txapelketara

Bestalde, Bizkaia Open Master IV Sari Nagusia antolatu zen urtarrilaren 24an eta 25ean Getxoko Fadura igerilekuan. Buruntzaldea IKTko Mikel Esnal igerilariak 50 m. libre, 50 m. bizkar eta 100 m. libre probetan lehiatu zen eta 50 metroko bi probetan Europako txapelketarako txartela eskuratu zuen.

Esnalek maiatzean jokatuko den Master mailako Europako Txapelketan parte hartzeko erronka ezarri dio bere buruari Borja Apeztegia entrenatzaileak

adierazi digunez. Getxoko proba gutxienekoak lortzeko txapelketa egokia zenaren ustetan, "etorkizunerako baliagarriak zaizkion markak erregistratzeko asmoz" joan zen Buruntzaldea IKTko igerilariak.

Beharrezkoak diren segurtasun neurriak betez eta edukiera kontuak errespetatzeko bi jardunalditan burutu zen txapelketa eta urtarrilaren 25ean, igandea, egin zuen igeri Esnalek. Goizean, 50 m. libre eta 50 m. bizkar probak egin zituen; arratsaldean, berriz, 100 m. librekoa.

50 m. libre proban, "uretan posizio egokia hartu gabe", 25,16ko marka egin zuen eta bizkar probarako lan espezifikorik egin ez arren, 29,32 egin zuen 50. metrotako proban. Bi marka horiek Europako Txapelketarako gutxienekoak dira.

100 m. libre proban ere gustora geratu zen Esnal, 55,71 eginez. "Azken 2-3 urteetan apur bat alde batera utzi du errespetu asko eta probarako segurtasun faltagatik. Berarentzat zaila zen proba, baina pixkanaka lasaia eta eta erosoago sentitzea lortu zuen", jakitera eman du Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko prestatzaileak.

Apeztegiak nabarmendu duenez, gustura itzuli zen Getxotik Buruntzaldea IKTko igerilariak eta gutxienekoak lortuta, Esnalek lanean jarraitu behar du. "Azken 2-3 urteetan, bizitzen ari garen pandemia egoeragatik eta beste hainbat arrazoiengatik, ez du aukera handirik izan entrenatu eta lehiatzeko. Beraz, entrenamenduekin aurrera jarraitu eta aukera berriak baliatzea baino ez da geratzen."

Bertan behera geratu dira Gipuzkoako pilota txapelketak

Eremu gorritik ateraz gero, Ezker Hormako txapelketako lehen fasea amaitzeko aukera izango du Intza KEK

Txintxarri

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak txapelketak behin-behinean bertan behera geratzen direla jakitera eman du, Ezker Hormakoa izan ezik. Osasun egoeraren garapenaren ondorio da hartutako erabakia.

Federazioak argitaratutako oharrean dioenez, "Osasun egoerak okertzen jarraitzen du eta 25 udalerrri daudela egoera gorrian, pasa den osteguneko hamasei udalerririkin alderatuz".

Urtarrilaren 31ko asteburuan jardunaldi horretako partiden

ehuneko txiki bat jokatu zela ere nabarmendu du, %28a.

Behin-behineko etenaldiaren beste arrazoietakoa bat kirol taldeen iritzia da.

Pilota elkarteek ez zaie "egokia" iruditzen osasun egoera honetan jokatzeko jarraitzea. Taldeek, besteak beste, COVID-19ak eragindako aurkariaren ez agertze bati esker partidariak irabazi nahi ez dutela edo segurtasun-neurriak direla-eta, etxeko partidak antolatzeke dituzten zailtasunak handiak direla helarazi diote federazioari.

Txapelketen jarraipenari dagokionez, Gipuzkoako Txapelketaren amaiera data atzeratzeko abagunea duela uste du federazioak. "Oso litekeena delako Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren lehiaketa egutegia berregituratzea".

Aldaketa hauek guztiak elkarteek jakinarazi dizkie federazioak. Horregatik, Intzako Joxe Felix Solanorekin harremanetan jarri gara.

Solanok esan digunez, "federazioak otsailean behintzat txapelketarik ez dela egongo

azaldu digu". Beraz, Intzako pilotariak ezingo dituzte Lau eta erdi edo Trinketeko txapelketak jokatu; Ezker Hormako txapelketa, ordea, bai.

"Lehen fasea amaitzeko partida bat geratzen zen. Lasarte-Oria eta Andoain eremu gorritik ateratzerakoan partida hori jokatzeko aukera eman dute. Interesatzen zaigun txapelketa da. Sailkapeneko buruan gaude eta hori jokatuz gero, lehen fasea amaituko genuke. Bigarren fasea, etenaldia amaitzean jokatzekoak dira, martxoan edo", aipatu du.



Euskadiko txapelketan parte hartu duten Ostadar Atletismoko lau atletak: Rekondo, Gonzalez, Furundarena eta Igarriz. OSTADAR ATLETISMOA

Ostadar SKT, bikain Euskadiko txapelketan

Naroa Furundarena Euskadiko txapeldun bikoitza da; Maider Rekondok pisu-jaurtiketa proban lortu du txapela; Enara Gonzalezek hirugarren postuan amaitu du luzera-jauziko proba eta Oihana Igarriz laugarren izan da pisu-jaurtiketa proban

Txintxarri

Ostadar Atletismoko Naroa Furundarena, Maider Rekondo, Enara Gonzalez eta Oihana Igarrizek pista estaliko Euskadiko txapelketan parte hartu dute asteburuan. Guztiak iritsi ziren euren probetako finalerara emaitza paregabeak lortuz: hiru urrezko, brontzezko domina bat eta laugarren postu bat.

Pozarren daude Ostadar Atletismoa saileko kideak. "Pista estaliko lehiaketa garrantzitsuenetakoa da eta atletek lortutako emaitzak bikainak dira", adierazi du Oscar Goikoetxea prestatzaileak.

Atletismo taldeko arduradunak jakitera eman digunez, Amara Mesa ere txapelketan parte hartzeko aukera izan zuen, baina federazioak proba bakoitzeko parte hartze kopurura mugatu zuen: "Lau kirolarirekin bakarrik parte hartu ahal izan dugu".

Lehen postuetan

Naroa Furundarenak lortu zituen domina gehien. Bi probatan parte hartu zuen Lasarte-Oriako gazteak, luzera-jauzian eta jauzi hirukoitzean. Nahiz eta baleko

jauzi gutxi egin ahal izan, bietan lehen postuan amaitu zuen.

Luzera-jauzian marka pertsonala egin zuen atleta gazteak, 5,76 metro. Ez zuen hasiera ona izan, lehen jauzia ez baitzen baliozkoa izan; bigarrenarekin sailkapeneko buru jarri zen, 5,65 metro, eta hirugarrenak garaipena eman zion. Zortziko finalean sartu eta bertan ezin izan zuen baleko jauzirik egin.

Jauzi hirukoitzeko lehen ere taulari neurria hartzeko zailtasunak izan zituen, eta, gutxiatik, baliogabeko ugari egin zituen. Azkenean, beste behin, hirugarren jauzian egon zen gakoa. Jauzia egin eta 12,31 metrotara iritsi zen sailkapeneko buru jarriaz. Zortziko finalean marka hobetzen saiatu zen, baina ezin izan zuen.

Luzera-jauziko finalean Furundarena ez zen bakarrik egon, Enara Gonzalezek ere sailkapena lortu eta podiumeko hirugarren mailan egon baitzen, 5,37 metroko jauziari esker.

Maider Rekondok, berriz, hasieratik hartu zuen abantaila pisu-jaurtiketa proban, 11,36 metroko jaurtiketarekin.

Hirugarren saiakeran 12 metroetatik igarotzea lortu zuen, 12,35 metro. Denboraldiko markarik onena izateaz gain, urrezko domina ere eman zion herriko atletari.

Furundarenaren antzera, Rekondok taldekide bat izan zuen finalean lehen, Oihana Igarriz. 10,53 metroko jaurtiketari esker, denboraldiko markarik onena egin zuen eta bere marka pertsonaletik gutxira geratu zen gaztea. Sailkapenean laugarren izan zen.

B finala

Bestalde, herriko beste hiru atleta ere izan ziren lehiaketa: Atletico San Sebastian taldeko Maria eta Nerea Eugi ahizpak eta Real Sociedad taldeko Yeray Veroniz. Hiruek 60 m. proban parte hartu zuten, eta Veronizek B finala jokatu zuen.

Real Sociadako kideak sailkapena lortu zuen 7,05 segundoko markarekin. Finalean, ordea, ez zuen bere unerik onena izan eta 7,17ko marka egin zuen.

Eugi ahizpek, berriz, ezin izan zituzten final-erdiak gainditu. Mariak 7,99 egin zuen eta Nereak, berriz, 8,15.



Iraia Iparragirre, Real Sociedad taldeko entrenamendu batean. REAL SOCIEDAD

Real Sociedad taldea seigarren, bigarren itzuliaren zain

Iraia Iparragirre herritarren taldeak Madrid CFF taldearen aurka norgehiagoka jokatu du larunbatean

Txintxarri

Real Sociedad taldeak seigarren postuan emango dio hasiera Iberdrola Ligako bigarren itzuliari. Lehen norgehiagoka hori, urtarrilaren 31n jokatu behar zuen, Sporting de Huelva taldearen aurka. Huelvako taldeak, ordea, neurketaren atzerapena eskatu zuen, bere taldean COVID-19aren bost kasu zeuden eta. Partidaren data zehazteke dago oraindik.

Hori dela eta, Iraia Iparragirre herritarra kide duen taldeak Madrid CCF izango du itzuli horretako lehen arerio. Zubietan izango da hitzordua, larunbat eguerdian.

Lehen itzulia garaipen paregabearekin amaitu ostean, Natalia Arroyok zuzentzen duen taldea 5 eta 1 gailendu zen Real Betisen aurka. Madrilgo taldearen aurkako partida zaila izatea aurreikusten dute donostiarrek.

Joaneko partidaren Madrid CFFk lortu zituen partidako hiru puntuak gol bakarrarekin. Orduan, laugarren jardunaldia zen; orain, bi taldeek Champions Leagueko sailkapena daukate jokoan eta puntuak behar dituzte sailkapenean gora egiteko.

Garaipena Oartzunen

Añorga KKEk berriz, hiru puntuak eraman zituen etxera. Oartzungo Karla Lekuona zelaian jokatu zen Nazional mailako partida Oartzun eta Añorga izan ziren aurrez aurre eta Añorgako taldeak 0-2 irabazi zuen.

Hasierako hamaikakoan bi herritar izan ziren Izaskun San Aniceto eta Ainara Del Olmo. San Anizetok gainera, lehen golean asistentzia egin zuen.

Añorga taldea garaipenaren bila atera zen, baina 42. minutura arte ezin izan zuen Oartzungo atea zulatu. Izaskun San Anicetok erdiraketa egin eta Larratiz kapitainak buruz bidali zuen baloia sarera.

Gol horrek bidea ireki zuen eta atsedendia iritsi baino lehen, alderatze batez baliatuz Ane Lopezek bigarren tantoa egin zuen.

Bigarren zatian, arerioa tartea txikitzen saiatu zen eta Añorgak, berriz, handitu nahi zuen. Saiakerek, ordea, ez zuten fruiturik izan eta atsedendiko 0 eta 2koa mantendu zen markagailuan.

Garaipen honi esker sailkapeneko bigarren postua mantendu zuen Añorgak.

Asteburu honetan Nazional mailako ligak ez du jardunaldirik, beraz, hurrengo astera arte atsedendia duen taldeak.


Baliagarria izango zaie atsedena hurrengo neurketa prestatzeko. Izan ere, otsailaren 14ko asteburuan, arerio zaila izango baitu Añorgak aurrean, Real Sociedad taldea. Sailkapeneko buru dago Real eta denboraldi honetan ez du partidarik galdu.

Zail izango du Añorgak bigarren postua mantentzea, atzetik dauden San Ignacio eta Bizkerre puntu batera eta bitara baititu taldeak, hurrenez hurren.


KOMIKIA




ZORION AGURRAK



Ane Miren
Gure etxeko "txikiak" dagoeneko 15. Asko maite zaitugu bihotza.



Roke
Zorionak gure etxeko parrandero nagusiari!!!! 18 zoro hauek EUTXI FUERTE... muxu asko famili osoaren partez!!!!



Nora
Zorionak Nora!!!! Oso ondo pasa zure urebetze eguna. 12 muxu haundi printzesa. Asko maite zaitugu.



Antonio eta Kontxi
Zorionak!!! Zuen 51 urteurrena!!! Goxo-goxo ospatu ta muxu handi bana, familiaren partez!!!



Mari Karmen
Zorionak lehendakari! Zure eguna ederki ospatu izana espero dugu. Ttakun Kultur Elkarteko kideak.



Oihana
Zorionak sorgina zure 5. urtebetetzean, aita, ama eta Lorearen partez. Asko maite zaitugu!!!!



Kaia
Zorionak, Kaia, bi urte! Gure bizitza zurekin hobea da! Maite zaitugu! Aita eta ama.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrak eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudiaz.


Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

HILDAKOAK

Jose M^o Carretero Castro. Urtarrilaren 31n.
Lourdes Estanga Mugica. Urtarrilaren 31n.
Roman Ortega Ortiz. Urtarrilaren 30ean.
Mari Jose Areizaga Ostolaza. Urtarrilaren 30ean.
Paki Gutierrez Amo. Urtarrilaren 23an.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 5




Larunbata, 6




Igandea, 7




Astelehena, 8




Asteartea, 9



Asteazkena, 10



Osteguna, 11



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 5 DE ORUE
LARUNBATA, 6 ACHA-ORBEA
IGANDEA, 7 ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 8 DE MIGUEL
ASTEARTEA, 9 LASA
AZTEAZKENA, 10 GIL
OSTEGUNA, 11 ACHA-ORBEA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZTA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

8	5	7	6	1	2
1		9	8		
	6	2	1	3	
2	7		4	3	
	8		1		
	1	8		7	9
9	1	5	8	3	6
	8	6		5	
	6		1	2	3

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN
Garaje ibi bat alokatzen dugu Sasotetan, 30 metro karratuko. Bi auto sartzen dira. Autonomoek biltegi bezala ere erabili ahalko luke. Garbitegi komunitarioa ere badauka. Harremanetarako zenbakia, 685 78 08 57.

LANA

ESKAINITZA

Biyak Bat adinekoren egoitzak bi langile behar ditu: podologo bat eta gizonezkoen ile-apaintzaile bat. Gainera, taberna kudeatzeko langileak ere behar dituzte. Interesatuak egoitzara hurbildu behar dira asteartean eta ostegunetan 10:30etik 12:30era.

ESKARIA

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta ebeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan

edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. Harremanetarako zenbakia, 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU

Egur eta ikatz sukalde ekonomika saltzen dut. Deville marka frantsesa. Barruan labe handi bat, labearen azpiko tiradera eta erraustak biltzeko gaitasun handiko bandeja bat daude. Prezio negoziagarria. Harremanetarako, 696 76 38 68 edo 699 72 33 14.

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso

konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

IKASTAROA

ESKARIA

Klase partikularrak emateko prest nago Lehen Hezkuntzan eta DBHko ikasleei. Harremanetarako zenbakia, 688 64 53 46.

Ingelesko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta esperientzia ere bai eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 630 313 / bentley.ma@gmail.com

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943 37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.bintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galarzi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Iñigo Otaegi, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Jose Lanchas,
Iñigo Garcia eta Igone
Mendizabal.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

ASTELEHENA 8

LASARTE-ORIA Erakusketa

CIMASUB 2020 jaialdiko argazki lehiaketako argazki irabazleen erakusketa ikusgai jarriko da. Otsailaren 26an itxiko ditu atekak. Danok Kide elkarteak Real Sociedad taldeko urazpiko jardueren sailaren laguntzaz antolatutako ekimena. Manuel Lekuona, 17:00etatik 20:50era.

LASARTE-ORIA CIMASUB

XIII. Itsaspeko Zinema Zikloari hasiera emango zaio. Ikusiko diren lanak:

- *Explora*. Felipe Ravina Olivares.
- *Cabo de Palos el Legado del Mediterráneo*. Francisco Javier Ferrer Martínez.
- *De guerra y de muerte*. Julio Junquera.
- *Bali*. Alex del Olmo Ramon.



LASARTE-ORIA Opera digitala. Opera digitala saileko otsaileko saioan balleta izango da protagonista. Izan ere, Royal Opera Houseko balletak 2016an grabatutako *Giselle* lana eskainiko dute. Jean Corallik eta Jules Perrotek egokitua, *Giselle* ballet klasikoa ezagutzeko modu ezin hobea da. Mundu errealean hasi eta heriotzatik haratago doan istorioa honetan, *Giselle* (Royal balletoko dantzari nagusia Marianela Nuñez) nekazariaren eta Albrecht kondearen (Vadim Muntagirov) maitasun-iruzur harremanaren nondik norakoak azaltzen dira. Adolphe Adamen musikak mundu errealetik hildakoen mundura eramango ditu dantzari eta ikusleak. Manuel Lekuona, asteazkena, 18:00etan.

- *Galápagos - The world that was meant to be*. Hendrik S. Schmitt.
- *Discovering a new world*. Marc Pedrals Prat.
- *Le fleuve invisible, un trésor sous la plaine du Rhin*. Dumont Serge.

Gonbidapena behar da. Leihatilan eskuragarri egongo dira eta pertsonako bi banatuko dira. Manuel Lekuona, 19:00etan.

ASTEAZKENA 10

LASARTE-ORIA Opera digitala

Opera digitala atalean, *Giselle* balletaz gozatu ahalko dute zaletuek. Sarrerak, aurrez 7,5 euro; egunean, 9 euro. Manuel Lekuona, 18:00etan.

OSTIRALA 12

LASARTE-ORIA Antzerkia

El mono habitado antzerki taldeak

¡Ave, Osos! antzezlanaren taularatuko du. Sarrera, 5,50 euro. Manuel Lekuona, 19:00etan.

LARUNBATA 15

LASARTE-ORIA CIMASUB

XIII. Itsaspeko Zinema Zikloaren bigarren saioa eskainiko da. Gonbidapena behar da. Leihatilan eskuragarri egongo dira eta pertsonako bi banatuko dira. Manuel Lekuona, 19:00etan.

OHARRA

TXINTXARRI aldizkariak agenda hau argitaratu duen egunera arte, bertan proposatutako ekintzak ez dute aldaketarik jasan koronabirusa dela eta.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Ez, eskerrik asko! (JBGA)
Ostirala: 19:00.

Bi urte lau hilabete eta egun bat (JBGA)
Larunbata: 19:00.

Vacaciones contigo... y tu mujer
Igandea: 19:00.

LABURPENA

Ez, eskerrik asko!

Zuzendaria: Bertha Gaztelumendi.
Jatorrizko ideia eta gidioa: Sabino Ormazabal. **Muntaia:** Inge Mendioroz eta Raul Lopez. **Musika:** Dani Venegas. **Herr.:** Euskal Herria (2019). **Iraupena:** 66 minutu.



LABURPENA

Bi urte lau hilabete eta egun bat Zuzendaria eta gidioa: Lander Garro. **Argazkia:** Heidy Otaduy, Iban Toledo eta Lander Garro. **Muntaia:** Zigor Garro eta Lander Garro. **Musika:** Paula Olaz. **Herr.:** Euskal Herria (2020). **Iraupena:** 80 minutu.



Iraganeko euskal borrokei begirada

Okendo Zinema Taldeak euskal dokumentalen zikloa antolatu du. Asteburu honetan lehen saioa izango da eta hainbat gonbidatu izango dituzte.

Ostiralean, otsailak 5, Gladys del Estal eta mugimendu antinuklearrari buruzko *Ez, eskerrik asko!* dokumentala eskainiko dute. Emanaldira lanaren zuzendaria eta gidoilaria, Bertha Gaztelumendi eta Sabino Ormazabal gerturatuko dira. Larunbatean, berriz, intsumisioari buruzko *Bi urte lau hilabete eta egun bat* lana ikusi ahalko da. Ikus-entzunezkoaren protagonistetako bat, Jantxi iruindarra, etorriko da.

Gizarte hobe baten albo ondorioak

1979an, Three Mile Islandeko (Harrisburg, AEB) istripu nuklearraren ondoren, eta Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren ospakizunekin bat eginez, —ekainak 3—, nazioarte mailako mugimendu antinuklearrak hainbat mobilizazio antolatu zituen.

80ko hamarkada hasieran mugimendu antinuklearra puri-puritan zegoen nazioartean, eta baita Euskal Herrian ere. Kostaldean eraikitzeaz ziren hiru zentralak gain (Lemoiz, Ea-Ispaster eta Deba), Arguedasen laugarren bat egiteko asmoa zegoen. Horren aurka protestatzeko,

mobilizazioak antolatu ziren Tuteran. Gladys del Estal Ferreño Tuterara joan zen, baina ez zen itzuli. Manifestazio baketsu hartan, Guardia Zibil batek tiroz hil zuen.

Dokumental honek asmo bikoitza du: batetik, 23 urteko gazte hau zein zen eta gertakariak nola jazo ziren ezagutarazi; eta, bestetik, Euskal Herrian eta mundu zabalean zentral nuklearen ezarpenaren kontra 70ko eta 80ko hamarkadetan izandako erresistentzia mugimenduaren berri eman.

Intsumisioaren gorabeherak

Iruñeako kartzela erautsi baino lehen, bertan preso egondako pertsona batek bere ziega bisitatzen du. Pozik egon beharko litzateke, baina negarrez hasten da. Bertan igaro baitzuten bere bizitzako bi urte, lau hilabete eta egun bat.

Lander Garrok 1990. urtean derrigorrezko soldaduskaren aurka mugimenduaren edo intsumisioaren azterketa egin du *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentalean. Ikerketa politiko, sozial eta intimoa da, eta, horretarako, kartzela pairatu zuten sei intsumisoren istorioa

dakar pantailetara. Sei intsumisio horiek lagunak izateaz aparte, gauza asko daukate komunean: denak giltzaperatu zituzten soldaduskari uko egin izanagatik, eta denek nahiago izan zuten kartzela, ejerzitoa baino.

Arrazoi asko egon ziren intsumisio izateko: bakezaletasuna, pentsaera anarkista, abertzaletasuna edota sinesmen erlijiosoak. Ezberdinak denak ere, baina guztiak erakutsi zuten ausardia eta tema handia, harik eta Estatuari borroka irabaztea lortu zuten arte.



COVID-19ak eragindako egoera tarteko, aurten ez dute kalejira koloretsurik egingo lasarteoriarrek. TXINTXARRI

Sinbolikoak, baina esanahiz beteak

Osasun-egoerara moldatutako egitaraua prestatu du Ttakun Kultur Elkartek, asteburu honetan Euskal Inauteriak sinbolikoki ospatzeko: maskara eta txantxo tailerrak, eta bideo-emanaldia, ekitaldiaren atzean egon daitezkeen mitoak azaltzeko

Txintxarri

Kaxkamalarekin batera, xomorro asko botako lituzkete herritarrek sutara aurten: koronabirusa eta pandemiak eragindako beste hainbat gaitz, esate baterako. Osasun-egoera nolakoa den aintzat hartuta, ordea, azken urteetan Lasarte-Orian ospatu diren Euskal Inauteriak beste era batera antolatu behar izan ditu Ttakun Kultur Elkartek, zenbait eragilerekin elkarlanean. Sinbolikoak izango dira aurtengoak, egia da, baina esanahiz beteak ere bai.

Maskara eta txantxo tailerrak, eta bideo-emanaldia, Euskal Inauterietan egiten diren dantzetan ezkutatuta egon daitezkeen mitoak azaleratzeko. Horiek dira larunbat honetako (otsailak 6) egitarauaren hiru ekintzak, hiru ardatzak. Anbulategiko gela balioanitzean egingo dira.

Maskarak egiteko saioaren helburua da 2022ko Euskal Inauterietan luzitzeko moduko kareta egitea –orduko osasun-egoerak ahalbidetzen badu, behintzat–. Etxeko gazteenei zuzendutako ekintza izango da. Indarrean dauden neurriak

tarteko, antolatzaileek materiala eramango dute; ezingo da elkarbanatu. Horrez gain, norberak etxetik eraman ditzake maskarak apaintzeko tresna gehiago. Ordu bat iraungo du saioak, 10:00etatik 11:00etara.

Euskal Inauterietan protagonista izaten dira txantxoak. Haietzako jantziak egiteko tailerra hasiko da maskarena amaitu eta ordu erdira, 11:30ean, eta 13:00etan amaitu. Lastozko txanoa eta oihalak eraman behar dira.

Mitoak azaleratzen

Euskal Inauterien beste elementu bat, funtsezkoa: dantza. Egoera ikusita, Plaza dantzako entseguak bertan behera uztea erabaki dute antolatzaileek. Horren ordez, bideo-emanaldi bat antolatu dute, koreografia horien atzean egon daitezkeen mitoen gainean hitz egiteko. Maskaradak azal lezake hobekien inauterien mitoa, eta ezpata-dantzak ere bai. 13:15etik 13:40era jardungo dira.

Egitarauko ekintzetako batean –edo hiruetan– izena eman nahi dutenek idatzi behar dute kultura@ttakun.eus helbidera, edo 695 78 53 89 telefono zenbakira deitu.

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

“KRISI GARAIAN,
PUBLIZITATEA DA
INBERTSIORIK
ONENA”

HORREGATIK... **DESKONTU BEREZIAK** DITUGU
HERRIKO KOMERTZIO, ENPRESA ETA OSTALARIENTZAT

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66 